

ABERRI EGUNA 2002



UDALBILTZA[®]
EUSKAL HERRIKO UDAL ETA HAUTETSIEEN BILTZARRA

GIZA ESKUBIDEEN ERRESPECTUA: Gure herriaren askatasunaren ardatza"

Martxoaren 31an, Bizkaiko Juntetxean, Gernikako Zuhaitzpean ospatzen da.

Iazko apirilaren 15ean, Aberri Eguna ospatzerakoan, guk, UDALBILTZAN biltzen garen udal hautetsiok, pertsonen eskubide eta askatasunaren aldeko konpromiso tinkoa agertu genuen. Gure Erakundearen sustraian errotuta dauden baloreak, hain zuzen ere.

Orain urte bete zera genion: "indarkeria eta eraikuntza nazionala elkartezinak" zirela eta "helburuek bezala bitartekoek ere oinarri berdina zutela: ekintza politiko demokratikoa eta soilki demokratikoa".

Gaur, Aberri Eguna berri bat ospatzerakoan, aipatutako printzipioez aparte, Herri baten izatea aitortu nahi dugu, Euskal Herriaren izatea, borondate eta nortasun propioak dituen herriarena, euskal nazioa osatzen duen herriarena eta hala ezagutua izatea nahi duena Europako beste nazioekin batera. Bertan bizi diren pertsona guztiek osatzen dute Euskal Herria, nahiz eta irizpide politiko edo identitate sentimendu ezberdinak izan.

Eredu uniformistak ezarri nahi dizkiguten Estatuen aurrean, Europako nazio eta herrien eskubidea goraiatzeko beraien etorkizuna aukeratzeko eta horretarako Batasun Europearran parte hartuko duten herri europar denei autodeterminazio eskubidea ezagutzea proposatzen dugu.

Bide demokratikoak landuaz, egitura politiko zuzen eta ekonomia jasangarriago bat lortu nahi dituen politikaren alde gaude, aberastasuna eta eskubide sozialak zuzen banatu eta zaintzeko. Halaber, giza eskubideen defentsa irmoa, herrien arteko berdintasuna eta diskriminazio guztien kontrako jarrera izango duen jokabidea dugu goiburua.

Egun honetan UDALBILTZAREN hautetsiok ezin ditugu ahaztu mehatxuak, erasoak eta askatasun murrizketak jasaten dituzten

pertsona guztiak; eta bereziki eta espresuki, gure sorreratik ETAk hil dituen gure kideak, udal hautetsiak: Jesus Mari PEDROSA (Durangoko Zinegotzia), Manuel INDIANO (Zumarragako Zinegotzia), Froilan ELESPE (Lasarteko Alkateordea), José Javier MUGICA (Leitzako Zinegotzia) eta Juan PRIEDE (Orioko Zinegotzia).

- Bere estrategia politikoaren arabera bizitza eta heriotza erabiltzen dituenaren jokabidea salatzen dugu. Heriotzaren estandarte erabiltzen duenak, aurkari politikoa erailtzen duenak, hiritarren eskubideak mespretxatzen dituenak, ez du bizitzarik errespetatzen, ez ditu pertsona eta herrien eskubideak errespetatzen.

- Euskal Herriak ez du inor behar indarkeriaz bere ordezkaria hartuko duenik.

Uste dugu garai dela ETaren zuzendaritzak eta militanteek herri honekiko izan duten derrigorrezko ezarpena behin betiko alde batera utzi eta herri honi, Euskal Herriari, egiten ari zaizkion kalteak eta galerak ezagutzeko.

Beharrezkoa da historiaren aurrean eta gure Herriaren aitzinean, arduraz, zintzotasunez eta ausardiaz jokatzeko hasteko ahalegina egitea. Eta ETAk heriotzaren bidetik jarraitu nahi badu, bere sigletatik Euskadi eta Askatasuna hitzak ken ditzala exijitzen diogu.

Ezinbestekoa da, eta lehenbailehen, benetako prozesu bat bultzatzeko eta garatzeko baldintza sozio-politikoak sortzea, beti ere konponbide politiko demokratikoetan oinarriturik. Garai zailak eta ilunak bizi baditugu ere, ezin dugu etsi, hautetsi bezala, gure herriaren aurrean, eta ezin dugu irtenbidea aurkitzeko esperantzarik galdu, ez gaude eta ezinezko zerbaiten aurrean.

Euskal hiritarrek eskubide osoa dute, dugu, bakea eta normalizazio politikoa lortzeko. Iraganean porrot egindako estrategiak alde batera utzi behar dira. Bazterreratze politiko eta sozialaren estrategiak demokrazi aurreko egoerara besterik ez garamatza. Ilegalizazio politikoa, indarkeriaren itxurak, eskubideak urratzeak, tortura ugartzeak irteerarik gabeko estrategia mugigaitz batera garamatza.

Egoera honen aurrean, hauek dira erantzuna eskatzen duten galderak:

- Gai da ETA bere erabaki propioz behin betiko distentsioa ekartzeko?
- Erabaki horrek Euskal Herriaren hitza errespetatzeko ahalegina lekarke?
- Gai dira Espainiako eta Frantziako Gobernuek Euskal Herriaren izatea aitortzeko, bere etorkizuna libreki eta demokratikoki aukeratzeko eskubidea duela ezagutzeko?
- Gai dira bi gobernuek auzia humanizatzen laguntzako eta kartzela politikari mendeku kutsua kentzeko?
- Ez ahal da posible alderdi eta erakunde anitzen arteko elkarrizketa prozesu bat irudikatzea, normalizazio politikoa bideratzeko?
- Ez ahal da posible denak onartzea, gobernuek eta alderdi politikoek, euskal hiritarrek, askatasun osoz, garbi eta demokratikoki, inongo inposaketarik gabe eta inork baztertu gabe, erabakiko dutena errespetatua izango dela?

Euskal gizarteak eskatzen duen bezalako prozesu politiko eta bakearen aldeko batek denon partehartzea behar du, gure aurrekoei zor diegu, gure artean ez daudenei zor diegu, euskal hiritar guztiei zor diegu, gure Aberriaren alde egin dezakegun zerbitzurik onena dela jakin badakigulako.

GORA EUSKADI ASKATUTA!

Gernikan, 2002ko martxoaren 30ean